

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz bizi dugun egoera ikusita, eta herritarrei hura hobeki eramaten laguntzeko, La Pamplonesa Iruñeko Musika Bandaren Kultur Elkarateak, egoitza Iruñeko Iratxeko Monasterioaren kaleko 6 behean eta G31111768 IFK duenak (aurrerantzean *La Pamplonesa*), Iruñeko Udalarekin elkarlanean abiatuko du, Instagram sare sozialaren bidez, "Partekatuz zure musika-istorioak La Pamplorekin!" ekimena, ondorengo klausuletan parte-hartzeko zehazten diren lege-baldintzekin bat etorrira.

LEHENA.- Parte hartzeko aldia eta modalitatea

- 1.1.- Zozketan parte hartzeko aldia 2020ko apirilaren 6tik 19ra izanen da.
- 1.2.- Parte-hartzea doakoa da.
- 1.3.- Ekimena *Instagram*-en gauzatuko da, beheago azalduko den mekanikarekin bat.

BIGARRENA.- Parte hartzeko legitimazioa eta kanpo geratzea

2.1.- Ekimen hau soilik dago zuzenduta lege-bizilekua Espainian duten 18 urtetik gorako pertsona fisikoei, baldin eta parte-hartzeko baldintzak betetzen badituzte eta beren parte-hartzea oinarri hauen laugarren klausulan adierazitakoarekin bat egiten badute.

2.2.- Ezin izanen dute ekimen honetan parte hartu La Pamplonesako kideek.

HIRUGARRENA.- Sariaren deskribapena

La Pamplonesaren merchandising-produktuen 5 sorta zozketatuko dira; bost irabazleek kamiseta, CD, katilu eta La Pamplonesaren mendeurrenaren liburuaz osatutako sorta bana eskuratuko dute.

LAUGARRENA.- Parte hartzeko mekanika, irabazleen hautaketa, jakinarazpena eta sari-banaketa

4.1.- Parte hartzeko mekanika honako hau izanen da:

Parte hartu nahi dutenek interpretazio musikal bat argitaratu beharko dute "istorioetan", honako baldintza hauekin bat:

- Bakarrik sartuko dira zozketan "istorioetan" argitaratutako edukiak. Ez dira kontuan hartuko horman egiten diren argitalpenak.
- Zozketaren ondorioetarako, parte-hartzaile bakoitzeko argitalpen bakarra hartuko da aintzakotzat. Edonola ere, parte-hartzaileak "istorio" bat baino gehiago argitaratzen ahalko du.
- Argitalpen-sekuentziako lehenengoan hiru traol hauek agertu beharko dira:
 - 1 - #QuédateEnCasa edo #EtxeanGeratu
 - 2 - @bandapamplonesa
 - 3 - @pamplonaescultura edo @irunakulturada
- @bandapamplonesa-k, @pamplonaescultura-k eta @irunaKulturada-k beren profiletan partekatuko dituzten bideoak 15 segundokoak izanen dira gehienez ere, parte-hartzaileak argitara litzakeen sekuentzia guztien artetik lehena bakarrik erakutsita. Aurrekoa gorabehera, parte-hartzaileak bere profilean argitaratzen dituen bideoek berak egoki jo bezainbeste irauz dezakete.

- Zozketan parte-hartzea baliozkoa izan dadin nahitaezkoa izanen da @pamplonaescultura edo @irunakulturada profilak edukia partekatu izana.
- Partehartzailearen kontuko pribatutasuna perfil publiko moduan gaitzea ezinbestekoa da. Horrela izanik, ekimen honen erakunde sustatzaileek interpretazioak partekatu ahalko dituzte eta interpretazio horiei bidegarritasuna emango diete zozketan parte hartuko dutenen erregistroan sartuz.

4.2.- Zozketa Iruñeko Udalak egingen du 2020ko apirilaren 20an.

4.3.- Irabazleen berri La Pamplonesa eta Iruñeko Udalaren sare sozialen bidez emanen da.

4.4.- Sari-banaketa gizarteak egun bizi duen osasun-egoera igarotakoan egingen da.

BOSGARRENA.- Irudi-eskubideak

Ekimenean parte hartzen dutenek baimena ematen diete La Pamplonesari eta Iruñeko Udalari beren izen-abizenak, beste datu batzuk eta irudia erreproduzitu eta erabiltzeko egitekoa den zozketarekin zerikusirik duten publizitate-promozioko edozein jardueretan, eta erabilpen horrek ez dio emanen ezen ordainsari edo onura eskuratzeko eskubiderik, irabazitako saria eskuratzeko salbu. Irabazleak berariazko baimena ematen die La Pamplonesari eta Iruñeko Udalari bere izena eta abizenak argitaratzeko erakunde bietako webgune eta sare sozialetan.

SEIGARRENA.- Erantzukizun-mugak

La Pamplonesa ez da erantzule izanen telekomunikazio-sistemetan akats eta gorabeheraren bat egon eta horren ondorioz ezin bada Internetera normaltasunez sartu edo bertan aritu.

ZAZPIGARRENA: Eskubideak gordetzea

La Pamplonesak beretzat gordetzen du erabiltzaileak bajaran emateko eskubidea, lehiaketa behar ez bezala erabiltzen ari badira, iruzurra egiten badute, beste parte-hartzaile batzuei kalte egiten badiete eta iruzkin lizunak edo iraingarriak egiten badituzte.

La Pamplonesak ezein anomalia hautematen badu edo susmoa badauka parte-hartzaile bat lehiaketa normaltasunez garatzea oztopatzen ari dela –esate baterako erregistroak legez kanpo aldatuta prozedura tekniko edo informatiko baten bidez– edo lehiaketaren gardentasuna kaltetzen duen iruzurrezko ekintzaren bat egiten ari dela, eskubidea izanen du halako iruzurrezko ekintzen onuradun zuzenak edo zeharkakoak izan direnei baja emateko, eta are, saria automatikoki kentzeko.

La Pamplonesak beretzat gordetzen du promozio honetako mekanika eta sarietan aldaketak egiteko edo ondoren eranskinak eransteko eskubidea, betiere ere aldaketa horiek justifikaturik badaude eta ez badie kalterik eragiten parte-hartzaileei.

ZORTZIGARRENA.- Kontuan hartu beharreko beste batzuk

Erreklamazioak egiteko epea emaitzak ezagutarazten direnetik aurrera 2 egun natural igaro eta gero amaituko da.

BEDERATZIGARRENA.- Lege aplikagarriak, oinarrien onarpena eta forua

Promozio hau Espainian indarrean diren legeen arabera egingen da. Promozio honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauei osorik men egitea. Irabazleari lehiaketaren baldintza guztiak onartzen dituela adierazteko idatzizko agiri bat eskatzen ahalko zaio. Oinarri hauek aplikatuzetik eratorritako gatazkak oro kasuan kasuko Epaitegi eta Auzitegiek ebatziko dituzte; edonola ere, nahitaezkoa izanen da, aurrez, gatazka auzibidetik kanpo ebazteko saiakera egitea, bitartekaritza-prozesu bat abiatuz, bi aldeak ados jarrita hautatutako bitartekari edo bitartekaritza-zerbitzu baten eskutik.

Iruñean, 2020ko apirilaren 6an